



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Gazteria Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Juventud



Gazteen
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Juventud

PRENTSA DOSSIERRA

“M15MREN BILBOKO MOBILIZAZIOEN INGURUKO GIZARTE DINAMIKEN AZTERKETA”

IKERKETA AURKEZTU DU GAZTERIA ZUZENDARITZAK

Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatuko Zentroko ikertzaile-taldeak M15Mren mobilizazioei buruz eginiko azterlana aurkezten da txosten honetan. Azterlan hori Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzaren laguntzaz gauzatu da. M15Mren mobilizazio hori azaltzen duten gizarte-dinamikak, partaideen profila, dituzten motibazioak eta antolakuntza-mekanismoak ezagutzera ematea da azterlanaren helburua. Gainera, azterlanean mobilizazioen helburuak argitu nahi dira, bai eta helburu horiek lortzeko bidean eragina izango duten kanpoko nahiz barneko faktoreak ere. Alderdi horiek argituta, politika instituzioetatik aparte egiteko modu berri batzuk azaltzeko gakoak ageri dira.

Izaera politikoko herritar-mobilizazio gehienak gertatu eta gero aztertu izan dira. Ikertzaileek prozesuak berreraiki egin ohi dituzte, espazio publikoetan erretzeko prozesu horietan esku hartzen zuten faktoreak ulertu ahal izateko, gertatu eta hainbat urte igaro eta gero.

Horrelako fenomeno politikoak gertatzen ari diren unean aztertzeko eta eragile nagusienengana zuzenean iristeko aukera bakanetako bat da M15Mren mobilizazioa. Gainera, gazteen sektore bat mobilizazioan protagonista izateak eta gizarte-sareek eta Internetek egiteko garrantzitsua betetzeak berritasun-kutsua ematen diote azterlanari. Era berean, gizarte-protestarako nahiz politika egiteko azaleratzen ari diren moduak ulertzen laguntzen dute.

Azterlana Gazteen Euskal Behatokiaren laguntzaz prestatu da, eta 5 ataletan egituratu da:

- Lehenengoan, Bilboko mobilizazioaren hastapena eta bere ezaugarri nagusietako batzuk azaltzen dira, zuzenean engaiatutako lagunen narrazioaren bitartez.
- Bigarrenean, Bilboko mobilizazioetan parte hartu zuten lagunen taldeko ezaugarri orokorrak zehazteko ahalegina egin da. Horretarako, ikerketaren arduradun-taldeak Arriagako kontzentrazioetan egin zituen inkestak aztertu dira.
- Hirugarrenean, elkarrizketa sakonen edukia eta M15Mren jardueretan eurretan bildutako informazio osagarria erabiltzen da mugimenduaren barne-dinamikak eta gizarte-ingurunearekiko interakzioa berreraikitzeko.
- Laugarrenean, M15Mko kiderik aktiboenen diskurtsoa eta komunikabideek mugimenduari buruz zabaldutakoa alderatzen dira.
- Bosgarrenean, azkenik, azterketa horien emaitza erabilita, M15Mk politikari, herritarren parte-hartzeari, instituzioei, gizarte-mugimenduei eta gizarte-sareen egitekoari buruz esaten digunaren inguruko hausnarketa egiten da. Era berean, etorkizunean aurre egin beharreko erronkak mahairatzen dira.



METODOLOGIA

Bilboko M15Mren azterketa enpirikoa egiteko, gutxienez lau datu-mota erabili dira, eta datuok hainbat metodoren bitartez bildu eta aztertu dira.

Inkestak. Arriagako mobilizazioetan parte hartu zuten 222 laguni euren ezaugarri demografikoei eta motibazioei buruzko inkestak egin zitzaizkien maiatzaren 20tik 22ra. Horretarako, 25 eta 60 urte bitarteko 10 inkestatzaile, emakume eta gizon, erabili ziren. Inkestak mobilizaziorik handieneko hiru egunetan egin ziren, eguneko hainbat unetan. Inkestatzaileei eskatu zitzaien plazan barrena ibiltzeko eta, euren iritziz, inguruko taldearen erakusgarri zen hainbat adinetako jendeari elkarrizketa egiteko.

Horrela, hautatutako lagina Bilboko M15Mn parte hartu zuten lagun guztien erakusgarri izango dela bermatu nahi izan da. Era berean, lortutako datuak parte-hartzaileen eta euren motibazioen hurbilketa egokia izatea ziurtatu nahi izan da.

Informazio osagarri gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko 21 eta 35 urte bitarteko gazteen ezaugarri soziopolitikoei buruzko datuak ere aztertu dira, fenomenoak bere testuinguruan kokatze eta kolektibo horren giroa nolakoa zen jakite aldera. Datuok Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak eskaini ditu.

Elkarrizketa sakonak. “Elur-pilota” metodoa erabili da Bilboko M15Mn lidergo-lanak euren gain hartu zituzten pertsonak zein ziren jakiteko. Horretarako, Arriagako plazan bertan “antolakuntzakoak” nortzuk ziren galdetu zitzaien pertsonarik aktiboenei. Zenbait interakzioen ondoren, M15Mn zeregin garrantzitsua zuten lagun taldea identifikatu zen. Horiekin izandako hasierako topaketetan, beste pertsona batzuen izenak eskatu zitzaizkien. Azkenik, 18-20 pertsona aipatu zituzten denek. Horietako 14ri elkarrizketa egin zitzaien (beste bi elkarrizketa egin ziren, baina lidergo-lanetan ez zebiltzane). Elkarrizketak osorik grabatu ziren. Horretarako, elkarrizketatuen baimena izan zuten ikertzaileek, anonimotasuna gordeko zen konpromisoarekin. Elkarrizketa horiek transkribatu egin ziren.

Elkarrizketa sakonetan lortutako datuak bi modutara erabili dira. Batetik, Bilboko M15Mren jaiotzari eta garapenari buruzko narrazioa berreraikitzeke balio izan dute. Bestetik, transkripzioen edukia aztertu egin da, elkarrizketa horietako kategoria jakin batzuk eta hautatutako egunkarietan erabilitakoak alderatzeko.

Hona erabilitako hirugarren metodoa: M15Mren identifikazioa, zazpi **egunkaritan**. Egunkariak honako hauek izan ziren: *El Correo*, *Deia*, *Gara*, *El País*, *El Mundo*, *ABC* eta *La Razón*. Horretarako, eguneroko jarraipena egin zaie, 2011ko maiatzaren 15ean hasi eta abenduaren 14ra bitartean, M15M berriaz aipatzen zuten artikuluen bila. Ondoren, fenomenoak prentsan jaso duen tratamendua elkarrizketatutako lagun taldearekin alderatu da. Azterketa hori egiteko, Euroisa enpresaren lankidetzak izan dugu, komunikazio-irudi idatziak aztertzen espezializatua.

Amaitzeko, ikertzaileen taldea **behatzaile** izan da asanbladetan, kontzentrazioetan eta manifestaldietan, M15Mri buruzko informazio gehiago lortze aldera. Sartzeko modu hori, jakina, subjektiboa da, baina garrantzitsua, era berean, dinamika batzuk ulertu ahal izateko.

Gainera, bigarren mailako informazioa bildu eta aztertu du ikertzaileen taldeak: M15Mk landutako agiriak, gai horri zein, oro har, gizarte-mugimenduei buruzko beste azterlan edo artikulua batzuen iturri bibliografikoak...

Ikertzaileen taldea honako hauek osatu dute: Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatu Zentroko Javier Arellanok, Iziar Basterretxeak eta Cristina de la Cruzek. Argazkiak Santiago Yaniz Aramendia argazkilariazenak dira.



BILBOKO M15M-REN ERNETZEA

Maiatzaren 15eko manifestaldiko gogo bizien eta Madrilen nahiz estatuko beste hiri batzuetan gertatutakoaren efektu mimetikoaren arteko konbinazioa izan zen Bilboko M15Mko mobilizazioa eta, beste hainbat hiritan gertatu bezala, geroko akanpada.

Proposamenaren funts etikoak, demokrazia onera ekartzeko eta alderdi politikoetatik independentea izateak erakarri zituen Benetako Demokrazia Orainean Bilboko kontzentrazioaren bultzatzaileak. Mobilizazio hori pizgarri bat izan zen: Madrilgo Sol Plazako mobilizazio hasi berriarekin konbinatuta, hainbat pertsonak Bilbon akanpada egitea erabaki zuten. Arrakastak antolatzaileak eurak harritu zituen.

NOR MOBILIZATU ZEN?

Inkesten emaitzen bitartez, mobilizatutako lagunen profila zehaztu ahal izan da. Gehienak ez ziren krisialdiak zuzenean kaltetutako gazteak; are gutxiago, ez ziren sistemaren aurka altxatutako pertsona marjinalak, komunikabide batzuek zabaldu nahi izan zuten bezala.

Mobilizatuek 30 urte inguru zituzten —gehienak 20 eta 30 urte bitartekoak ziren—, baina nagusiagoen presentzia esanguratsua izan zen, bereziki 45 eta 55 urte bitartekoena. Prestakuntza-maila altua zuten, biztanleria osoaren batez bestekoarena baino altuagoa. Gehienak (%58) lanean zebiltzan mobilizatu zirenean, baina bertaratutako langabezia-tasa handiagoa zen Euskadiko batez bestekoa baino, bai 30 urtetik gorakoan artean (%21), bai adin horretatik beherakoan artean (%29).

Bestalde, Internetek eta gizarte-sareek zeregin garrantzitsua bete zuten mobilizazioa ezagutarazteko garaian, bai eta albisteak jarraitzeko orduan ere. Mobilizatuetatik gutxi hartzen zuten parte gizarte- edo politika-erakundeetan. Haien partaidetza-maila bat zetorren Euskadiko batez bestekorekin. Hala ere, badirudi normaltasunez (edo batez bestekoak baino gehiago) hartzen dutela parte hauteskundeetan.

Azkenik, gehienek kalera irteteko duten arazoiek nolabaiteko pasibitate-kutsua duten arren (babestu, kuriositatea, protestatu), mobilizazioaren helburuei buruzko galderari "aldaketak eragin" erantzuten zioten.

Espero zitekeen pertsona horiek mobilizatzea?

Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak EAEko 21 eta 35 urte bitarteko lagunei buruz emandako datuak aztertu dira. Datuon arabera, politikarekiko interes txikia dute, eta ez daude pozik demokraziak funtzionatzeko duen moduarekin. Politikari buruzko albisteei egiten zaien jarraipen-maila, ordea, ez da baxua. Beraz, nola izan daiteke interes-eza horren orokorra izatea eta, aldi berean, politikari buruzko albisteen jarraipen-maila horren altua? Ez dago erantzun argirik, baina gure ustez, litekeena da pertsona horiek politika ez arbuizatzea —arlo publikoaren kudeaketa den aldetik—, politika historikoki mugatu duten forma instituzionalak baizik.

EAEko 21 eta 35 urte bitarteko lagun gutxi hartzen dute parte politika- eta gizarte-erakundeetan, M15Mko partaideen artean bildu diren datuek ere adierazten duten bezala.

Aurreko datu guztiak ikusita, agian onartu beharko genuke ondorezaren "eztanda" aurreikus zitekeela, ezustean harrapatu arren. Bestela esanda, ondorez orokorra adierazteko edozein abagune aprobetxatzeko baldintzak betetzen ziren.

BARNE DINAMIKAK, ESTRATEGIAK ETA INGURUAREKIKO INTERAKZIOAK

Dinamikak

Kontzentrazioen arrakastak euren dinamika bera zehaztu zuen, bai eta antolatzaile-taldean zeudenen jokoera ere. Funtsezko hiru elementuk zehaztu zuten dinamika hori:

- **Emozioa pizgarri.** Haserre komuna deskubritzea eta besteak pertsonalki aurkitzea izan ziren baliorik handienak, gorde beharrekoak eta akanpadaren funtzionamendu-irizpideak eraikitzekeo erdigunea.



Dinamika emotibitate handiz jantzita zegoen, eta, hori dela-eta, bertaratutako batzuek uste zuten zerbait guztiz berrian ari zirela parte hartzen.

- **Kontzentrazioaren antolakuntza materiala.** Akanpadaren antolaketa logistikoak garrantzi handia izan zuen ideia politikoen multzoa eratzeko. Akanpada parte-hartzean oinarriturik kudeatu zen; M15Mk gestio publikoa modu ezberdinean antolatzeko zuen proposamen politikoen laborategia eta metafora izan zen hura.
- **Mobilizazioari irtenbidea aurkitu beharra, etorkizunera begira.** Parte-hartzean oinarritutako metodoak hasieran piztu zuen berotasuna epeldu egin zen eta tentsioak agertzen hasi ziren: M15Mren helburuei buruzkoak eta esan behar zuten edo esan behar ez zutenaren inguruan... Hartara, mobilizazioaren hasieran ikuspuntu ideologikoen pluraltasuna utzi ezineko balioetako bat izan zen; egunek aurrera egin ahala, aldiz, pluraltasuna lausotuz joan zen. Komunikatuetako, manifestuetako eta "gutxieneko kontsentsua" delakoko jarrerak mugimendu alterglobalizatzailearen barruan sar daitezke.

Estrategiak

M15Mk garatutako estrategietan, lau ezaugarri antzeman daitezke:

- Kontzentrazioen eta akanpaden aurretik subjekturik ez egotearen muturreko kasua da M15M. Parte-hartzaile gehienak banaka heldu ziren, helburu komunik gabe. Hain zuzen ere, mobilizazioak katalizatu zuen subjektu kolektibo prekarioaren eraketa. Kolektibo jakinek mobilizazioekin bat egin duten arren, ez dira funtsezkoak izan edukiak finkatzeko garaian, hasieran, bederen.
- Eskarien zerrenda zehaztu bat izan gabe edo eskari horiek igortzeko agintari argirik gabe abiarazi zen M15M. Sistema politikoen funtzionamenduaren eta finantza-botereek hura hurrupatu izanaren aurkako suminduraren eta ondoezaren adierazgarri izan zen hasieran. Mugimendua beranduago hasi zen — akanpadek bideraturik— arazoaren diagnostikoari buruz eta balizko proposamenei buruz hausnartzen.
- M15Mk jarduera-multzo argia izan du, herritarrek identifikatua izateko balio izan duena.
- M15Mk bere irudia zaindu du gizarte osoarentzat erakargarri izateko. Hori dela-eta, alderdi politikoen gaineko, sindikatuenganako eta finantza-botereenganako diskurtso kritikoa eratu du, gizartearen zati handi baten ondoezarekin bat datorrena. Kritika horrekin batera, egungo sistema politikoa irauli ez, baina erreformatzea aldarrikatzen zen, hasieran. Aldi berean, bere jardueretan urraketa-mailarik txikiena bilatzen zen, izaera ez-biolentoa, irekia eta ludikoa azpimarratzen zen bitartean. Urraketa bakarria espazio publikoa hartzea izan zen, eta, hori ere, Bilbon eta herri gehienetan, agintarien isileko adostasunez egin zen.

Ingurunearen gaineko eragina

Hasieran, sistema politiko eta ekonomikoaren funtzionamenduari nolabait lotuta zegoela ikusten zen instituzio orori kritika egitea zuen M15Mk ezaugarri nagusi. Alderdi politikoak, enpresa handiak —finantzen arlokoak, nagusiki— eta sindikatuak sartzen ziren talde horretan. Baina kritikek gizarte-arloko erakundeak ere ukitzen zituzten: GKEak, kasu, aurrekontu publikoaren mende zeudenez, boterearekin nahastuta zeuden; gizarte-mugimenduak, aldiz, geldi.

Hasieran, alderdi politikoak —handienak, PP eta PSOE— egon ziren, nagusiki, M15Mren ituan. Gainera, mugimendua udal-hauteskundeak izan aurretik erne zen, eta mugimenduak alderdi horien zilegitasunaren oinarri den ordezkapen-sistema bera jartzen zuen zalantzan. Hala ere, zantzu guztiek adierazten dutenez, udal-hauteskundearen emaitzetan izandako eragina oso txikia izan zen. Azaroaren 20ko hauteskunde orokorretan, ordea, alderdi txiki batzuen botu-kopuruan gorakada nabarmena egon zen estatu osoan, baina ez dirudi bozketan egondako aldaketa hori M15Mri egotz dakiokenik.

Gainerako gizarte-eragileek eta eragile politikoei M15Mri buruz zuten irudiaren atzean susmoa eta, kasu batzuetan, gorroto argia zegoen.

Nolanahi ere, zaila da neurtzen M15Mk nolako eragina izan zuen inguruan. Lehenengo egunetako elkarretaratze-gaitasuna harritzekoa izan zen, bereziki gizarte-arloko elkarte eta mugimenduentzat, horrenbeste jende erakarri eta mobilizatzeko gai izan ez direnak.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Gazteria Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Juventud



Gazteen
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Juventud

Maiatzaren 22ko hauteskundeen ondoren, asanbladak eta akanpadak hustuz joan ziren. M15Mk mobilizazioari segida emateko modua bilatu behar izan zuen. Horretarako, ezker alterglobalizatzailearekin eta gizarte-mugimenduekin lotuago zeuden jarreretarantz lerratu zen.

M15M ETA KOMUNIKABIDEAK

Alde argiak daude mobilizazioan zuzenean engaiatutako lagunen diskurtsoaren eta komunikabideenaren artean.

- Protagonisten diskurtsoan honelako kategoriak ageri dira: *lana, langabezia, asanblada, sareak, twitter, facebook, Internet, alderdiak, sindikatuak, aldaketa, proposamena* eta *konponbideak*.
- Komunikabideenetan, ordea, honelakoak: *hauteskundeak, botua, manifestaldia, kontzentrazioa, errespetua, zibikoa, bakea, bakezalea, gazteak, gobernua, bozeramailea, protesta eta ekonomia*. Hala ere, hedabideen artean, kategoriak erabiltzeko modu desberdinak bereiz daitezke.

Diskurtsoen azterketatik ondoriozta daiteke guztiek identifikatzen dutela M15M gatazkei lotuta ez dagoen mugimendu bakezale gisa. Bilboko M15Mren protagonista zuzenen diskurtsoa identifikatuago dago egunkariena baino arazo jakin batzuekin (*langabezia, lana*) eta eragile batzuen erantzukizunarekin (*alderdiak, sindikatuak*). Kutsu "positiboagoa" ere badu, "*aldakuntza*", "*proposamenak*" eta "*konponbideak*" bezalako kategoriak presenteago daude eta.

ZER ESATEN DIGU M15M-K? IRAKASPENAK ETA GALDERAK

Ez dakigu nolako bilakaera izango duen M15Mk etorkizunean. Era berean, ez dakigu M15Mk zein heinetan ahal izango duen lagun-talde baten partaidetza etengabe izan. Hortik harago, ordea, dirudienez, lortu egin du gai batzuk politikan mahairatzea, bai eta mobilizazio koordinaturako ahalmen handia finkatzea ere.

Gainera, M15Mk honako gaiei buruzko hausnarketa dakarkigu:

Instituzio politikoei buruz:

- Euren pertzepzioa da instituzio politikoak ez direla biztanleen interes orokorraren ordezkari.
- Alderdi politikoei zegozkien ustelkeria-kasuetan izan duten arduragabekeriak zilegitasuna kentzen die instituzio politikoei.
- Ez dago eztabaida publikorik interes handiko gaiei buruz.
- Politikak alderdietako zuzendaritzetan zehazten dira, botere ekonomiko edo sozialekin ados jarrita.

Gizarte-mugimenduei buruz:

- Parte hartzeko adorea kentzen duen gehiegizko ortodoxia dagoela hautematen dute, diskurtso ideologikoa onartu behar dela, norberaren iritziak adierazteko askatasunik gabe.
- Aberastasunaren banaketaren inguruan dagoen gizarte-haustura, jatorrizko gizarte-mugimenduak bultzatu zituen (sindikatuak), gizarte-mugimendu "berriek" erlatibizatua, eztabaidaren erdigunera dator, berriro ere.

Gizarte-sareei buruz:

- Orain arte lausotuago egon den gizarte-ondoeza zehazteko "katalizagailua" dira.
- Parte-hartze zuzena ahalbidetzen dute eta antolakuntza politikorako modu horizontalagoen premia planteatzen.
- Mobilizazioaren garapenean funtsezko dinamizazio-azpiegiturak dira.



- Azkenik, "askatzaileak" dira, merkatuaren indarren kontrolari ihes egingo dioten askatasunerako eta gizarte-autonomiarako guneak dira.

Politikan parte hartzeari buruz:

- M15M politika egiteko modua da, politikari buruz mesfidatia dena.
- Azken 25 urteetan nagusi izan den diskurtsoaren nolabaiteko jarraipena dago, arlo publikoaren kudeaketari eduki politikoa kendu nahi izan dion diskurtsoa.
- Askotariko joerak daude M15Mren barruan. Horrek bere proposamenen eta izaeraren anbiguotasuna azpimarratzen du.

ERRONKAK, ETORKIZUNERA BEGIRA

Zenbait erronka jakin direla-eta, hausnarketarako elementu hauek mahairatzen dira, M15Mren dinamikak aztertu eta gero:

- Beharrezkoa da instituzioetan erreformak egitea, herritarrek kudeaketa publikoari dagozkion datuak eskuratzeko eta erabakiak hartzeko prozeduretan parte hartzeko gardentasuna susta dadin.
- Beharrezkoa da botere politikoek autonomia gehiago izatea, interes pribatuen aurrean, eta hori ezarrita utzi eta erakustea. Horretarako gardentasun handiagoa lagungarri izango litzateke, bai eta alderdi politikoaren finantziazioaren nahiz agintarien eta enpresen arteko harremanen gaineko kontrol handiagoa egotea ere.
- Beharrezkoa da hainbat gizarte-eragile barne hartuko dituzten politikak lantzea.
- Estatuaren ezintasunaren diskurtsoa eraldatu behar da. Hainbatetan, politikak onartu egiten dira, ezinbestekoak direla esanda (merkatuek nahiz Europar Batasuneko kideek exijitzen dituztelako...). Estatuaren ezintasunaren mitoa elikatzen dute argumentu horiek, eta euren zilegitasuna bera eta ordezkatzeko-sistemarena higatzen dute, azkenean.
- Gizarte-mugimenduek, alderdiek eta sindikatuek gizarte-partaidetzaren alde garatzen dituzten praktikak eta estrategiak aztertu beharko litzateke. Zera planteatu dezakete: zer heineraino diren, oraindik ere, eztabaidarako gune, hainbat ideiatara eta berrikuntzara irekiak, edo zein neurritan finkatu duen instituzionalizazioak euren diskurtsoa eta praktika.
- Interesgarria izango litzateke aztertzea nolako gaitasuna duten gizarte-sareek beren eraldatze-indarra denboraren poderioz finkatzeko.

Amaitzeko, M15Mk zer pentsatua ematen du prozesu kolektiboak sortzeko garaian emozioek eta sormenak betetzen duten egitekoan. Baina oraindik ikusteko dago honelako mobilizazioek norainoko gaitasuna duten maila gorenetan erantzun politikoak eskaintzeko.